

Hika eta Trapu Zaharra Tarregan izango dira asteburu osoan

DONOSTIA

Hika eta Trapu Zaharra antzerki talde gipuzkoarrek gaur hasi eta igandean bukatuko den Tarregako Kale Antzerkiaren XII. edizioan izango dira, Katalunian ezezik Estatu espainiar osoan kale antzerkiari begira egiten den ekitaldirik nagusiena. Jaialdian 96 konpainia izango dira eta horietatik hamahiru Europako zenbait herrialdetakoak dira. Hauxe da estreineko aldia Tarregako Jaialdiak nazioarteko maila hartzen duena eta kanpoko talde dezente ekartzen dituena.

Euskal antzerki taldeek aurkeztuko dituzten obrak aurrean estreinatu berriak dira eta hamaika aldiz taularatuak jadanik Euskal Herriko zein kanpoko zenbait txokotan. Bi taldeen txanda bihar bertan helduko da. Errenteriarrek eguerdiko ordubatean eszenaratuko dute 'Visto y no visto' beren azken lana Major enparantzan. Handik bost ordura, 'Ongi etorri etsai hori' eta Hika aterako dira kalera El Reguer izeneko parajea. Usurbildarrek bigarren emanaldi bat ere eskainiko dute bi ordu geroago toki berean. Hikak herri kultura eta kultura erraldoiaren arteko txokea isladatu du.

Tarregan parte hartuko duten taldeetatik 35 kale antzerkian aritzen dira oro har, eta beste 29k Europako Kale Antzerkiaren I. Erakusketan hartu dute parte.